

Bizkaiko udalerrien eta biztanle-entitate txikien izen ofizialak aldatzeko prozedura

Prozedura 8/93 Foru Arauan biltzen da (BAO, 1993ko uztailaren 26a), eta 7 urrats hauetan laburbil daiteke:

1.- Udalbatzak edo auzo-batzarrak aldaketaren alde hartutako erabakiak hasiera emango dio espedienteari.

2.- Aldaketa-espedientea hogeita hamar laneguneko epean jarriko da jendaurrean, iragarkiak argitaratuz Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta lurraldean zabalkunde handiena duen bost egunkarietako batean, gutxienez.

3.- Hurrengo urratsa Euskaltzaindiaren txostena eskatzea da: gehienez, 60 laneguneko epean aurkeztu beharko du erakunde horrek; hala ez bada, aldaketaren aldekotzat joko da.

4.- Udalbatzak proposamenaren aldeko edo aurkako behin betiko erabakia hartuko du.

5.- Izena aldatzeko espedientea Bizkaiko Foru Aldundira bidaliko da, entitate txikien kasuan, eta Bizkaiko Batzar Nagusietara, udalerrri baten izena bada, erakunde horiek onespena eman dezaten. Ebazpen hori Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, eta eragindako herri-erakundeei jakinaraziko zaie.

6.- Aldaketa Bizkaiko Toki Entitateen Foru Erregistroan jasoko da.

7.- Udalerrien kasuan, onartutako aldaketak ofizialak izango dira BOE Espainiako Aldizkari Ofizialean argitaratzen direnean.